IRAZAN ANTZERKI GUNEA

EHUN SOZIALA | ELKARTEA EDO FEDERAZIOA | KULTURA, ARTEA ETA ONDAREA

Herrixan antzerkia sortu eta sustatzeko eremu bat izateko asmoarekin sortu genuen taldea, sormenerako espazio kolektibo bezala. Gaur egun arte talde desberdinak sortu izan dira Irazanen: Algaraz, Xup, Zartaka,... eta beste proiektu asko. Debagoieneko Antzerki Plataformaren laguntzarekin formakuntzak eta sormen prozesuak bultzatzen ditugu.

Larraña Auzoa, 16 (ELTZIA eraikina)

Oñatiko erdialdea

irazantaldea@gmail.com



SORMENA · ANTZERKIA · KULTURA · FORMAKUNTZA

GAIAK

NORI ZUZENDUA EDOTA NORENTZAT

SEKTOREA

NABARMENDUTAKO EKIMENAK



Beita

Beita, hamabost minutuko zortzi ataleko websaila da, eduki osagarriez lagundua argitaratuko dena. Baina, zer da Beita? Beita, amuan arrainak harrapatzeko jartzen den jakia edo horren itxura duen substantzia da, arrainak amura erakarri eta horri hel diezaion. Amu horri heltzera behartuta sentituko dira koadrila honetako lagunak. Sexualki

erasotu du norbaitek Izaro eta bere lagunik onenaren bikotekidea jarri dute ustezko erasotzailearen jomugan, gainontzeko lagunak itzaletan dauden bitartean.

informazio gehiago